

behar. Hartara, bertako datu-basean begiratu eta azkar topatuko dute Noeliaren galtzak josteko gai den kideren bat.

Auzopolis irabazirik gabeko proiektua da eta izen bereko erakunde da sustatzailea eta koordinatzailea. Duela urte eta erdi inguru jarri zen martxan Ermuan, Tokiko Garapenaren inguruko ikastaro bat zela medio. «Jende desberdina elkartu ginen bertan eta, irakasleak jarritako baldintza batzuen arabera, proiektu bat prestatu behar genuen. Auzopolisen proiektua izan zen aurrera egin zuen bakarra», kontatu du Maite Fernandezek.

Hasiera hartan, hemezortzi lagun bildu ziren Auzopolis elkartearen, gaur egun kasik 60 kide dira eta berrehun bat laguneko sarea osatu dute. Ermuan, Elgoibarren, Eibarren, Bergaran, Durangon, Mendaron eta Donostian ditu kideak. «Kide bakoitzaren inguruan beste sareto bat sortzen da, bere familiarena. Esaterako, Pedro eta Madalenaren semea informatikaria da eta, norbaitek behar duenean, laguntzera etortzen da». «Oso jende desberdina biltzen gara, bai adinez, bai jatorriz, baita jakintzaz ere. Auzopolis elkargune bat da eta bertan baldintza bakarra dago: denbora denboraren truke», jarraitu du azalpena Ima Pagaldaik. Hain zuzen ere, Maite Fernandez eta Ima Pagaldai dira Auzopolis elkarteko sortzaile eta koordinatzaileak.

#### BERDINTASUN GUNEA

Denbora bankua 18 urte baino gehiagoko hiritar guztientzat dago zabalik. Bertan parte hartzeko lehen urratsa bazkide egitea da. Horretarako, inprimaki bat bete beharra dago eta, bertan, trukatu nahi dituen zerbitzuak zehaztu behar ditu bazkide bakoitzak; alegia, eskatu eta eskaini nahi lituzkeen zerbitzuak. «Informazio horrekin truke posibleen zerrenda eratzten dugu, datu-base moduko bat, eta martxan jartzen gara. Baina guk kudeatzen ditugu zerbitzu guztiak», jarraitu du Fernandezek.

Badira gizarte laguntza eskaintzen duten bestelako zerbitzuak eta, horietan, eskatzaileak horixe baino ez du egiten, eskatu eta jaso. Auzopolis, ordea, desberdina da. «Berdintasun gunea izan behar du Auzopolisek eta, berdintasuna lortzeko denok eman eta jaso behar dugu. Edonork momentu batean behar du laguntza eta edonork eska dezake».

Auzopoliseko bultzatzaileek garbi daukate beren jardunaren zentzua zein den. «Askotan esaten da beste mundu bat po-



**Auzopoliseko hainbat kide Consuelori josteko lana ematen. Trukeak ez du zertan bikoteka izan behar eta, ondorioz, zerbitzu eskaintza zabala dago aukeran.**

Jon HERNÁEZ | ARGAZKI PRESS

sible dela. Proiektu honekin beste herri bat posible dela erakutsi nahi dugu, eta denbora bankua aldaketarako tresna egokia da. Ezin da beti administrazioaren eta agintarien teiltura bota harria, herritarrek ere alda dezakegu gure ingurunea, eta oso modu errazean gainera».

Denok gara besteei zerbitzu eskaintzeko gai. Hori ere defendatzen du Auzopolisek. «Guztiok dakigu zerbitzu egiten eta jakintza hori errekonozitzen eta nabarmentzen du Denbora Bankuak. Gainera, hurbilen daudenei gure jakintza horiekin laguntza eskaintzeko moduan gaude,

nahiz eta askotan ez zaigun iruditzen. Eta ez da karitatezko laguntza, trukean zerbitzuren bat jasoko baitugu». Finean, betidanik auzoetan egon den mugimendua berreskuratzen nahi du Denbora Bankuak. «Lehen ohikoa zen auzotarren artean laguntza ematea. Hori berreskuratzen nahi dugu eta, gainera, teknologiaren laguntzaz, hobetu egin daiteke hartu-eman hori. Lehen auzo berdinean bizi zirenen artean zen trukea eta, orain, teknologiari esker, auzo edo herri desberdinetan bizi direnen artean eman daiteke dinamika hori».

#### GIZARTE BERRIA, BEHAR BERRIAK

Auzopolisek denetarikoz bazkideak ditu, horietako batzuk, atzerritarrek. «Duela gutxi arte herri berdinean jaio, bizi eta hiltzen ginen, baina, gaur egun, horrelakorik ez dago. Herri berri batera zoazenean bakarrik aurkitzen zara, lagunak eta familiarik gabe. Proiektu hau benetan aproposa da horrelako egoera batean laguntza sare bat osatzeko, jendea ezagutzeko eta herriratzen joateko».

Euskal gizartearen gero eta etorkin gehiago dago. Baina hori ez da azken hamarkadan gizarteak izan duen aldaketa bakarra. Egun, gero eta jende gehiago bizi da bakarrik, eta horientzat ere aproposa da denbora bankuaren aukera. «Bakarrik bizi denak etxeko mahai bat mugitzeko ere laguntza behar du. Edo lanean baldin badago, garbigailua konponetzera doanari norbaitek zabaldu behar dio atea, han egon behar du konponketa egin bitartean eta ordaindu egin behar dio». Hori arazo bat izan daiteke. Baina, Auzopoliseko kidea baldin bazara, seguru laguntzeko moduan dagoen norbait topatuko duzula. «Gaur egun oso normala da atari batera joan, txirrin guztiak jo eta inor ere ez topatzea etxean. Hori duela urte batzuk ez zen sekula gertatzen, beti zegoen norbait etxean. Baina, gaur egun, ez. Horrenbestez, gizarte berriak dituen behar berriak asetzeko modua eskaintzen du Auzopolisek».

Denbora Bankuak onurak dakartza bertako kideentzako, baita herritarrentzako ere. «Herri bizitza eskaintzen du Auzopolisek. Eta lotarako herriak bizitzeko herriak bihurtzen ditu. Batzuetan sinestearazi nahi digute ditugun arazo eta galdera guztien erantzuna teknologiak emango digula eta hori ez da horrela. Teknologia oso lagungarria izan daiteke, baina ez ditu inoiz aseko barruan ditugun behar guztiak», bukatu du azalpena Maite Fernandezek.

**Hasieran 18 kide zituen Denbora Bankuak. Gaur egun, kasik 60 bazkide dauzka eta 200 bat laguneko sarea osatu du, bazkideen senideekin eta ingurukoekin**